



EUSKAL HERRIA SOZIALISTA



98 zenbakia
euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**Ezker
Iraultzailearen
aldizkaria**

**EH Bilduren emaitza
historikoak EAJren aurkako**

KALEETAKO BORROKA

EKARRI BEHAR DU



EH BILDUREN EMAITZA EAJREN AURKAKO KALEE EKARRI BEHA

Ezker Iraultzailearen adierazpena

Joan den apirilaren 21eko hauteskondeek lurrikara politikoa eragin dute EAEn eta Espainiako Estatuan. EH Bilduk emaitza historikoak lortu ditu ezker abertzalearentzat, 341.735 boto, eta berdinketa EAJrekin eserlekuetan, 27. Azken honen berriz 1998tik izan duen emaitzarik txarrena jaso du.

Bi alderdien arteko aldea 30.000 botorra murriztu da, duela lau urte 100.000 boto ingurukoa izan arren. Nafarroako emaitzak batuz gero, EH Bildu da lehen indarra Hego Euskal Herrian.

Aldi berean, emaitza horiek kolpe latza izan dira 78ko erregimenarentzat: Vox, PP eta bere espainolismo neofrankistarentzat; Estatuaren aparatuarentzat eta epaile eta fiskal erreakzionarioen leizearentzat, izan ere, ezker abertzalea, independentismoa edota ezker borrokalaria etengabe jazarzen eta kriminalizatzen baitute; eta baita PSOE-PSErentzat ere, eskuin muturrean aurka aho betez hitz egin arren, gero ETAREN mamua baliatzen saiatzen direnentzat, PP eta Vox bezala.

Eskuin espainolista oro har emaitza kaxkarra lortu du: 118.545 boto eta PPren eserleku bat gehiago besterik ez. Bazterreko indar gisa mantentzen da, botoen %11,26 bakarrik lortuta (%9,23 PPK, eta %2,03 Voxek). EH Bilduk hirukoiztu egin ditu.

Bestalde, EAJk, euskal eskuinaren eta patronalaren alderdiak, udal hauteskondeen bidea jarraitzen du, duela urtebete EH Bilduk EAeko zinegotzi kopuruan

gainditu baitzituen. 370.554 botorekin, hamarkadetako emaitzarik txarrena lortu dute. 2012. eta 2016. urteekin alderatuta, EAJk 14.000 eta 28.000 boto galdu ditu hurrenez hurren, eta ia 4 puntu portzentual eta 4 diputatu 2020. urtearekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, PSE-EEren babes irmoari esker, Lakuako gobernuan beste lau urtez jarraituko dute, Kongresuan Pedro Sanchezzi emandako babesaren truke.

EH Bildu nagusi ezkerrean, Sumar eta Podemos hondoratzen diren bitartean

EH Bilduren emaitzak, inkestek aurrekusi arren, hasteskundeetako faktore nabarmenenak izan dira eta ondorio garrantzitsuak dakartzate. Botoen % 32,48rekin, 2020an baino 92.155 boto gehiagorekin, %36,9ko igoerarekin eta 6 diputatu gehiagorekin Gasteizko Legebiltzarrean, ezker abertzalea PSEren eta are EAJren feudoak izan ziren lurralde historikoetan sartu da, eta Podemosen espazioa jan dute.

EAE osatzen duten 249 udalerrietatik, ezker abertzalea da lehen indarra 153tan, EAJ 95etan eta PP batean. Bilboko ezker-raldean (Barakaldo, Sestao, Portugalete eta Santurtzi), PSEren aldeko zonalde tradizionallean, EH Bilduren hautagaitzak ia 10.000 boto gehiago lortu ditu, PSE gaindituz eta guztietan bigarren indarra izanik, Portugaleten izan ezik.

EH Bilduk irabazi ditu hauteskondeak Gipuzkoako herri industrial handietan, Eibarren, Tolosan edo Zumarragan, eta bigarrena da, EAJtik gertu, Irunen edo Beasainen. Aiaraldeko bi herri langile ga-

rrantzitsuenetan (Laudio eta Amurrio) ere garaipena lortu dute.

Bilbon, EAJren hauteskunde-feudoan, 2020an baino ia 13.000 boto gehiago lortu dituzte. Donostian, EH Bildu bigarren indarra da, EAJren aldeko boto gutxi batzuk lortuta (duela 4 urte, EAJk ia 10.000 botoko aldea ateratzen zien), eta Gasteizen, EH Bilduk udal hauteskundeetan lortutako garaipena berretsi du, jeltzaleak baino ia 2,5 puntu gehiago (EAJk 7 puntu atera zizkien 2020an).

Aldi berean, Madrilen koalizio-gobernua osatzen duten indarrek emaitza txarrak eta katastrofikoak lortzen dituzte, nahiz eta makillatzen saiatu.

PSEk (Eusko Jaurilaritzaren parte ere bada) 149.660 boto lortu ditu, (%14,22), 27.412 boto gehiago eta 10 diputatutik 12ra pasa dira. Kopuru horiek oso urrun daude 2009an lortu zituzten 25 parlamentarietatik eta botoen % 30etik. Emaitza horiek aurreko hauteskunde orokorrekin alderatuz gero, PSEk 142.272 boto izan ditu, botoen %48.

Sumarrekin berriz hordagoko kolpea jaso du: Arabatik diputatu bakarra da, 35.092 boto (%3,34). PSOEren proiektu pertsonalista eta gregario honentzat beste kolpe bat, sinesgarritasunik gabekoa eta ezdeusa.

Laburbilduz, Gobernu zentralako alderdiak ez dira %18a iristen, eta EH Bilduk bikoiztu egin ditu. Argi eta garbi gaitzesten dira kudeaketa, politika kapitalistak eta militarismo otanista.

2016an Euskadiko hauteskunde orokorrak irabazi zituen Elkarrekin Podemosi dagokionez, Eusko Legebiltzarretik desa-

gertu da, 6 eserleku galdua eta botoen %2,25 jasota. 2016tik, botoen %93 galdu dituzte, eta 310.000 baino gehiago jasotzetik 21.000 jasotzera igaro dira. Beste hondamen bat eta ez dute inolako ondoriorik ateratzen. Formazio morearen panorama tamalgarrria da.

Ez dugu kapitalismoa kudeatzeko ezker behar, baizik eta borrokarakoa, internazionalista eta komunista

Iraganean Podemosi botoa eman zioten dozenaka mila langile eta gaztek bizkarra eman diote, babesa EH Bilduri emateko. Gobernagarritasun kapitalistaren errealisismoak, koalizio-gobernuarenak eta keinu-politika huts eta parlamentarismo berritsua- ren esperientzia mingotsak bere bidea egin du. "Zerua indarrez hartu" behar zuen alderdia suntsitu du. Batzuentzat bidaia online telebista batean eta Lavapieseko taberna batean amaitu da, baina ehunka milarentzat benetan tamalgarrria izan da.

EH Bilduk egoera horri etekina ateratzen dio irudi borrokalariagoa emanaz, erreakzioaren etengabeko erasoari esker, Ministroen Kontseiluan eta Eusko Jaurilaritzan zuzenean parte hartu ez duelako, eta euskal langile mugimendu boteretsuan dituen sustraiei esker, ELA eta LABen gehiengo sindikal borrokalariarekin eta azken urteotan bultzatu diren grebekin. Baina hala ere, beharrezkoa da ezker erreformista berriak izan duen deskonposizio sakonetik ondorio guztiak ateratzea.

2008ko krisi kapitalistak eragindako altxamendu sozialaren ondortik sortu ziren



HISTORIKOAK

TAKO BORROKA

R DU

erakunde horiek (Podemos, Syriza, Die Linke, Bernie Sanders edo Corbyn) eta masa-izaera izan zutenak, kaleetan milioika pertsonak babesten zituztela, instituzionalitate burgesa eta parlamentuko politikak planteatu zituzten gauzak aldatzeko bide gisa. Baina gobernu kapitalista batetik politika kapitalistak baino ezin dira egin, eta ez dira gai, ikusten ari garen bezala, pairatzen ditugun gaitz larriak konpontzeko.

Lezio hori zehatz-mehatz aztertu beharko lukete EH Bilduko buruzagiek. Lortu dituzten emaitzak albiste onak dira, zalantzarik gabe, EAJ garaitu dezakegula pentsatzen dugun guztiontzat, eta erabat kontziente garenontzat EH Bildu eta EAJ ez direla gauza bera, ezta hurrik eman ere. Berdinak direla pentsatzea sakrifizio izugarriak egin dituzten milaka borrokalariren oroimena eta konpromiso militantea iraintzen duen haur-ezkerkeria da.

Langile klaseak, lau urteotan Euskal Herri osoan greba egin duten sindikalismo borrokalariko milaka ekintzailek, EH Bilduri eman diote botoa masiboki. Hori eztaba daezina da, eta gaitzetsi egiten ditu ahoa proletarioz eta sozialismoz bete arreen fronte bakarraren politika leninista aplikatzeko gai ez direnak erreazioaren, euskal eskuinaren eta patronalaren aurka.

Baina potentzial hori guztia hustuko da akats berberak errepikatzen badira: EAJri, euskal patronalaren alderdiari, herri aliantza egitera edo PSOE-PSEri, kartoizko politika sozialak egitera deitzen jarraituz gero, kapitalistek negozio izugarriak bermatzen zaizkien bitartean eta milioika prekarietatera, desberdintasunera eta pobrezia iraintzen gaituzten bitartean.

Ekintza politikoa parlamentarismora murrizteak, EH Bilduren zuzendaritzaren estrategiaren arabera, demokrazia burgesaren marko oker eta faltsua onartuz, non gai erabakigarriak

Ibex35eko monopolio kapitalista handiek erabakitzen dituzten, lehenago edo geroago frustrazioa, desmoralizazioa eta hondamendia ekarriko ditu. Horrela ikusi dugu behin eta berriz.

Politika “pragmatiko eta are kontserbadore” horrek, Sorturen azken kongresuan onartutako txostenak jasotzen duen bezala, Podemos —eta aurretik Syriza— deskonposizio egoera batera eraman du, eta horrek ondorio negatiboak ditu langileen mugimenduentzat eta gazteentzat.

Behar duguna ez da hori, iraultza sozialistaren bandera altxatzea baizik, behetik, kaleetan, greben tresnaren bidez, greba orokorra barne, masen mobilizazioak, lantegien okupazioak, borroka ideologikoa; etenik gabeko borroka kapitalismoaren, militarismoaren eta gerra inperialistaren aurka, Gazako genozidio izugarriaren eta gizateria mehatxatzen duen hondamendi ekologikoaren aurka.

Ezker Iraultzailetik argi daukagu hori dela Borboien 78ko erregimen ustela haustea ahalbidetu dezakeena, eta horren beldur direla hain zuzen EAJ eta euskal patronala, erregimen horren funtsezko piezak baitira. Horrela aldatzen da indar korrelazioa, eta ez pragmatismoarekin, ezta Parlamentuko tribunako diskurtso hutsekin.

Hauteskunde hauek erakutsi dute oso esparru zabalagoa borroka hau egiteko. Baina horretarako antolatuz egin behar dugu eta borrokarako erakunde leninista bat eraiki.

**Bat egin Ezker Iraultzailearekin!
Defendatu ideia hauek komunista iraultzaileekin!**

Gure programa

- **Gutxieneko soldata hilean 2.000 eurora igotzea.** Ibex-ak irabazi errekorak ditu gu lapurtetik eta esplotatetik, aski da! Lanaldia astean 32 ordura murriztea. Lan eta pentsio kontrarreformak oso-rik indargabetzea. Erretiroa 60 urterekin.
- **Hilean 2.000 euroko langabezia sorospena,** aberastasun handiei eta bankuei ezarritako zergekin finantzatu.
- **Etxebizitza hutsen nahitaezko desjabetzea jabe handien, bankuen eta funts putreen eskuetatik.** Etxebizitza publikoko parke bat sortzea, gutxieneko soldataren %20 gainditu ezin dezakeen alokairu sozialekin. Etxe gabetze guztiak legez debekatu.
- **Bizitza duina eta enplegu osoa bermatzeko,** bankuen eta monopolio handien nazionalizazioa langileen kontrolpean.
- **Hezkuntza publikoa berreskuratzeko talka-plana.** Hezkuntzaren doakotasun osoa haur hezkuntzatik unibertsitatera eta Lanbide Heziketara. Aurrekontu publikotik euro bat ere ez pribatu eta itunduarentzat. Hezkuntza % 100 publiko eta euskaldunaren alde! EAEko Hezkuntza Lege berriari ez!
- **Osasungintza %100 publiko, duina, doakoa eta unibertsala denontzat.**
- **Atzerritarren Legea eta Atzerritarren Barneratze Zentroak indargabetzea.** Arrazakeriari aurre egin, etorkinei eta haien familiei eskubide guztiak eman.
- **Indarkeria matxistatik, justizia patriarkalik eta LGTBI kolektiboaren aurkako diskriminazioz ez.** Lan berean, soldata bera. Abortu libre eta doakorako eskubidea osasun publikoan. Sexu-heziketa behar dugu ikasgeletan. Trans komunitatearentzako eskubide osoak.
- **Ingurumen-hondamendia geldiarazi: ekonomia-aren plangintza sozialista, ekologiko eta iraunkorraren alde.** Ez EAJren makroproiektuei!
- **Amnistia euskal preso politikoentzat, eta salbuespeneko espetxe-legeak eta erregimenak indargabetzea.** Utikan Mozal Legea, muntaia eta poliziaren indarkeria!
- **Autodeterminazio eskubidea Euskal Herriarentzat eta nazio zapalduentzat.** Behera monarkia frankista! Errepublikan sozialistaren alde.



LENINENEN MENDEURRENA

Beste IRAULTZA bat behar dugu!

EKITALDIAK

GASTEIZ

Maiatzak 15 asteazkena 19etan
Aldabe gizarte-etxea
(Arriagako Atea, 1-A)

TOLOSA

Maiatzak 16 osteguna 19etan
Kultur Etxea
(Triangulo Plaza, 1)

BILBO

Maiatzak 17 ostirala 18etan
La Bolsa udaltegia
(Pilota Kalea, 10)



ANTOLATU

EZKER IRAULTZAILEAN